

JARRAITZEKO PAUTAK

Egoera irregularrean -paperik gabe- daudenei buruzko neurriak eraginik gabe utz ditzagun Osakidetzan

OSASUN ZERBITZUENGATIK KOB RATZEA ONGIZATE ESTATUA MURRIZTEA DA

Espainiako Gobernuak ezarri eta euskal erakundeek ere gauzaturiko ordainkidetzaren arabera hainbat jende, osasun- eta farmazia-zerbitzuak jaso ahal izateko, ordaindu beharrean dago. Gero, farmazia-berrordainketa abiarazi zuten, eta 18 urtetik gorako etorkin irregularrek —egoitza-baimenik gabe eta urtebeteko errolda baino laburrago— botiken %100 ordaindu behar dute.

Horrela, Patxi Lopezen gobernuak eman eta oraingo gobernuak mantendu duen 114/2012 Dekretuak dioenez, **etorkin irregularrak —paperik gabekoak—, TIS osasun-txartela jaso ahal izateko, urtebetez gutxienez egon behar dira erroldaturik. Txartel hori ezinbestekoa da osasun-arreta ordaindu gabe jasotzeko.**

Neurri hori, zalantzarik gabe, beste murrizketa bat izan da gizatalde ahulenentzat, pertsona horiek kriminalizatu nahian ibili ondoren ezarritakoa (gogoan izan funtzionarioekin egin zutena...). Horren eraginpeko pertsonen, egoera prekarioan bizi direnez, elkartasun ezaren arazo bat sortzen zaie, bazterkeria-guneak zabaltzen dira, aukerak murrizten zaizkie, osasun-arretarako eskubidea eta hezkuntza-eskubidea mugatzen zaizkie, eta osasun-sistema publikora jotzeko aukera zailtzen zaie; baina gizarte osoarentzat ere arriskua dago, ez baitira errotik moztzen izurri kutsakorrak.

Baina, gainera, gure eguneroko jardun profesionalean ere izango du eragina. Beraiek, neurria abian jartzeko, Osakidetza langileen laguntza beharko dute ezinbestez; laguntza hori ez da mugatuko administrarien arlora, harantzago joango da, eta zelariak, DUEak, eta fakultatiboak ere tartean sartuko dira. Paperik gabekoak artatze-ardurak lanbide-kategoria guztiak hartzen ditu eraginpean: zuzenean artatzen dutenak, harreran daudenak, administrazio-arlotik kobrantza egin behar dutenak...

FAKTURAZIOA:

EAEko Osasun sailburuak bere ardura peko esparruan ez dela kobratzen dioen arren (eta horren esangurak askotarikoak izan daitezke: ez dela kobratzen, ez direla saiitzen kobratzen, ez dutela ordaintzera behartzen, ez dela ordaintzen), eta fakturarik ez dela bidali esan arren; guri bestelako informazioak iritsi zaizkigu sektoretik. Horien arabera, fakturak bai bidaltzen direla, eta zenbait zentrotan kobratu ere eskuz kobratzen dela. Egoerak, beraz, askotarikoak dira.

Zenbait osasun-zentrotan eskuz kobratzen ari da, gauzarik ohikoena balitz bezala, eta laguntzaile batzuen kexak ere jaso ditugu, zeren atzerako diru-xehea beren sakelatik jarri behar dute, eta gero zentroko funts batetik berreskuratu behar. Beste leku batzuetan, agindu zehatza eta idatzia jaso ez dutenez, entzungor egiten dute. Beste batzuetan larrialdietako pertsonala ez da arduratzen kontsultak, probak... kobratzen, eta Kargu Ataletik bidaltzen dute faktura. Zenbait ospitaletatik helbide batera bidaltzen dute faktura, baina askotan ezta bidali ere ez dute egiten, bistakoa baita ez dela inora helduko; besteetan gizarte-zerbitzuetatik igortzen dira fakturak, baina gehien-gehienak ordaindu gabe itzultzen dira, eta ez dituzte berriro bidaltzen. Beste zentro batzuetan %100ean bermatzen dute osasun-arreta, batez ere larrialdietan. Beste zentro batzuetatik esan digute ez dutela jaso ez agindu, ez zirkular, ez jarraibiderik horren gainean. Zentro batzuetan kobratu egiten zaie TIS ez dutenei, ohiko prozedura gisa. Denetarik dago, kasuistika zabala.

Gure jendeak bidaltzen dizkigun argibideez gain, gizarte-arloko elkarteen salaketak ere badaude, eta haietako batzuk Eusko Legebiltzarreraino iritsi dira. Badaude kobrantzak **larrialdi-zerbitzuan beherakoa tratatzeagatik** edo lehen-arretan artatzeagatik; badaude kexak **paperik gabekoei TIS (Osasun Txartel Indibiduala) ukatzeagatik**, edo **egoera irregularrean daudenei aldi baterako agiria (hiruhilekoa) emateagatik**; badaude **haurrak osasun-txartelik gabe** gurasoek, TIS edukita ere, lanik ez izateagatik...

Osakidetzan jarraibideak daude "profesionalen jardunbidea bateratzeko, Osakidetzaaren estalduratik kanpoko bezeroei osasun-asistentzia eman behar zaien kasuetan". Jarraibide horietan "fakturatzeko moduko kasu guztiak" jasotzen dira; eta "norbanakoentzako arreta" atalean, "Osasun Sailaren/Osakidetzaaren estaldurarik gabeko edo TIS gabeko pertsonekin" jarraitu beharreko prozedura azaltzen da: "Nori fakturatu", "Artatuari unean bertan entregatuko zaio faktura, eta ahal dela ordainaraziko diote", emandako osasun-zerbitzuak eta ordaindu beharreko diru-kopuruak xehe-xehe azalduta.

ZER EGIN? BA OTE DUGU AURKEZTEKO MODUKO AUKERARIK?

Hori gauzatze aldera Osakidetzaako langileengana jotzen dute, bai osasun-langileengana -kontrola egiteko, eta TIS txartela aurkeztu ezean edo kostua ordaindu ezean, arreta baldintzatzeko edo ukatzeko-, bai administrazio-langileengana -diru-kopuruen kobrantza betearazteko edo fakturak bideratzeko-.

Murritzeta horiek gauzatzen eragozteko, trabatzeko edo baldintzatzeko aukera ugari ditugu.

Lehenengo eta behin, ELAko militanteei eskatzen diegu arazo horiez jabetzeko; bigarren, Osakidetzaako lankideei eskatzen diegu laguntzaile ez izateko, ez aktibo, ez pasibo.

Erabateko ezetza ematea baino, guk uste dugu baditugula beste aukera batzuk neurri hori gauzatzen eragozteko. Ezetza zuzen ematea ere zilegi da noski, baina nagusi baten agindua ez betetzeak bere arriskuak dakartza, eta gainera, oinarrian erantzun kolektiboa egon behar da, eta ez banako erantzunak.

Diskriminazio-mota hori ezarri nahi duten zerbitzu-antolakundeetan agindu zuzena, argia, idatzia eta irakurtzeko moduko sinadurarekin eskatu daiteke; gerora erantzukizunak egotzi ahal izateko, eta salaketak jarri ahal izateko.

Neurri hori aplikatu nahi den tokietan azalpenak eskatu ahal izango zaizkie kudetzaileei, eta aginduaren, zirkularraren edo mandatuaren ardura norena den zehazteko exijitzea.

Horrela egiten badute, jakinarazpena ikusgai jarriko da, aginduaren emaileak bere izena nongura ikus dezan.

Problematika hori Osakidetza Zuzendaritzara aurkeztuko zaio, horren inguruan erabakiren bat dagoen galdetuz, edo aipaturiko jarraibidea oraindik ere aplikagarria den galdetuz. Familia-medikua eta TIS denei emateko exijituko zaie, eta baita doako osasun-arreta Euskal Herrian bizi diren guztiei ziurtatzeko ere, begiratu gabe norberaren jatorria edo administrazio-egoera. TIS txartela modu normalizatuan eman behar da, eta urtebeteko eroldaren baldintza erretiratu, fakturazioa bertan behera utzi, eta paperik gabekoei ezarritako ordainkidetzaren trabak kendu.

Jakinarazpenen bat jasoz gero, premiatu behar ditugu zehaztera Akordio Erregulatzaillearen edo Eginkizunen Eskuliburuaren (postu funtzionalen dekretua) zein puntutan jasotzen den ataza hori (arreta kobratzearena); eta xehetasun hori adierazten badigute, salaketa jarriko dugu.

Traba horiek prozesua geldiarazten duten bitartean, ez da eskuz kobratu behar, eman nahi dizkiguten datuak apuntatzera mugatu, eta Osakidetza beste maila batera igorri... eta edonor nahastu daiteke datuak jasotzerakoan... eta faktura ez da inoiz helduko jasotzailearenganaino.

Eta horrekin batera, protesta- eta salaketa-ekintzak, kartelak, elkarretaratzeak eta izaera sindikal, zibil eta demokratikoko bestelako ekimenak.

Baina, gure egitekoez gain, exijitu behar diogu Osakidetzari bat etortzeko emandako adierazpenekin, eta beraz kupoak banatzeko. Hau da, ohiko arreta moduan kontuan hartzeko, eta ez "osagarri" moduan, pertsonalaren borondatearen eta lan-kargaren kontura.

Borroka hori irabazi ahal dugu, baina pausoz pauso jokatu behar dugu / Esta pelea la podemos ganar, pero actuando con método,

Horregatik premiatzen ditugu gure militanteak erronka hori beren egitera / Por ello instamos a nuestra militancia a implicarse en este reto.